## IKASLEEKIN ZERIKUSIA DAUKATEN JARDUERETARAKO 2023. URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMA

UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzak 2023. urtean ikasleekin zerikusia daukaten jardueretarako dirulaguntzen berri ematen du.

### HELBURUA

Programaren helburua ikasleen jarduerak finantzatzeko ikastegiei ematen zaizkien dirulaguntzak arautu eta koordinatzea da, ikasleen interesa sustatzeko eta unibertsitateko bizitzan modu aktiboan parte har dezatela bultzatzeko.

### HARTZAILEAK

Programako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte graduetako eta masterretako ikasleek, bai eta ikastegietan eskolak ematen dituzten irakasleek ere, betiere proposatzen dituzten jarduerek ikasleekin zerikusia badute.

Eskatzaileen ikastegiko Ikasleen Kontseiluak ontzat eman beharko ditu programa honen barruan proposatuko diren jarduerak. Ikastegian ez badago ikasleen kontseilurik, ikastegiak horrela dela adierazteko egingo duen idatzia aurkeztu beharko du.

Eskaerak ikastegi bakoitzean aurkeztuko beharko dira.

### EGUTEGIA

Finantzatuko diren jarduerak 2023. urtean egin beharko dira.

### FINANTZATU DAITEZKEEN JARDUERAK

Hauek dira finantzatu ahal izango diren jarduerak:

## PROGRAMA DE AYUDAS ECONÓMICAS PARA ACTIVIDADES RELACIONADAS CON EL ESTUDIANTADO DEL AÑO 2023

El Vicerrectorado de Estudiantes y Empleabilidad de la UPV/EHU informa sobre las ayudas económicas para financiar actividades relacionadas con el estudiantado para el año 2023.

### OBJETO

El objeto de este programa es regular y coordinar las ayudas económicas que se conceden a los centros universitarios para financiar actividades del estudiantado con el fin de potenciar el interés del mismo, promoviendo así su participación activa en la vida universitaria.

### DESTINATARIOS/AS

El estudiantado de Grado y de Máster, así como el profesorado que imparte docencia en los centros universitarios, podrán solicitar las ayudas económicas objeto de este programa, siempre que las actividades propuestas estén relacionadas con el estudiantado.

Las actividades que se propongan en el marco de este programa deberán contar con el visto bueno del Consejo de Estudiantes del centro de las personas solicitantes. En el caso de que el centro no disponga de Consejo de Estudiantes será necesario aportar un escrito del propio centro donde conste tal circunstancia.

La presentación de las solicitudes se realizará en el centro correspondiente.

### CALENDARIO

Las actividades objeto de financiación se desarrollarán durante el año 2023.

### ACTIVIDADES SUSCEPTIBLES DE SER FINANCIADAS

Las actividades que podrán ser objeto de financiación son las siguientes:

· Ikastegiko jarduera akademikoarekin lotutako ikasleen mugikortasuna
· Biltzarretara, estatuko zein nazioarteko lehiaketetara edo txapelketara joatea.
· Ikastaroak, ikasteko teknikak edo landa jarduerak.
· Ikasleen graduazio ekitaldiak edo diplomak emateko ekitaldiak.
· Ikasleentzat onuragarriak diren eta ikasleek unibertsitateko bizitzan modu aktiboan parte hartzea bultzatuko duten gainerako jarduerak.

· Movilidad del alumnado relacionada con la actividad académica del centro.
· Asistencia a congresos, concursos nacionales e internacionales o competiciones.
· Asistencia a cursos, técnicas de estudio o actividades de campo.
· Actos de graduación o entrega de diplomas al estudiantado.
· Cualesquiera otras actividades que redunden en beneficio del estudiantado y promuevan su participación activa en la vida universitaria.

**FINANTZIAZIO PROZEDURA ETA BALDINTZAK**

**1. ESLEIPEN EKONOMIKOA:** Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzak ikastegi bakoitzak jasoko duen zenbatekoaren berri emango die ikastegiei martxoan zehar. Zenbateko hori ikastegi bakoitzeko ikasle kopurua kontuan hartuta kalkulatuko da.

**2. HEDAPENA:** Ikastegiak programa zabalduko du bere ikasle eta irakasleen artean, Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzak ematen dituen laguntza hauen berri izan dezaten.

**3. PROZEDURA:**

- Ikastegiak errektoreordetzari helarazi beharko dizkio ondoren aipatzen diren dokumentuak, beteta, apirilaren 20(a) baino lehen:

  - I. eranskina, beteta, ikastegiko Ikasleen Kontseiluko buruaren eta ikastegiko zuzendaritza taldeko arduradunaren erabakiari buruzkoa. Bertan, dirulaguntza zein jardueretarako erabiliko den adieraziko da.

- Apirilean, Ikasleen Errektoreordetzak finantziazioa esleituko dio ikastegiaren kasuan kasuko organikoari, aurkeztutako eskariek deialdiko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.

**PROCEDIMIENTO y CONDICIONES DE FINANCIACIÓN**

**1. ASIGNACIÓN ECONÓMICA**: A lo largo del mes de marzo el Vicerrectorado de Estudiantes y Empleabilidad comunicará a los centros universitarios el importe concreto asignado a cada uno de ellos, que se calculará en función del número de estudiantes de cada centro.

**2. DIFUSION:** El centro hará difusión del programa entre el estudiantado y el profesorado de su centro a fin de que tengan conocimiento de la existencia de estas ayudas otorgadas por el Vicerrectorado de Estudiantes y Empleabilidad.

**3. PROCEDIMIENTO:**

- El centro deberá facilitar a este Vicerrectorado los siguientes documentos cumplimentados antes del 20 de abril:

  -Anexo I cumplimentado, referido al acuerdo del presidente o presidenta del Consejo de Estudiantes del centro y de la persona responsable del equipo de dirección del mismo, en el que se indicará para qué actividad o actividades se destinará la ayuda.

- En el mes de abril el Vicerrectorado de Estudiantes llevará a cabo la asignación de la financiación correspondiente a la orgánica del centro una vez comprobado que las solicitudes presentadas cumplen los requisitos de la convocatoria.

- Azaroan, ikastegiak gastuak justifikatuko ditu, web orrian adierazi bezala. Fakturak eta jardueren memoria (II. eranskina) formulario hau osatuz aurkeztu beharko da.
- Jarduerak egitean sortutako gastuen fakturak ordainduko dira betetzen baldin bada UPV/EHUn kontratazio txikia kudeatzeari buruzko UPV/EHUko gerentearen instrukzioan ezarritako prozedura kudeaketa ekonomikorako eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
- Gastuen azken justifikazioa bat etorri beharko da hasierako proposamenarekin. Salbuespenezko kasuetan, hasierako proposamenean egingo diren aldaketa guztiak aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzari, eta ontzat eman beharko ditu Ikasleen Kontseiluak.

- En el mes de noviembre el centro realizará la justificación de los gastos de acuerdo a lo establecido en la página web. Las facturas junto con la memoria de las actividades (Anexo II) deberán subirse en este formulario.
- El abono de las facturas de los gastos para el desarrollo de las actividades se realizará siempre y cuando se cumpla el procedimiento de gestión económica establecido en la Instrucción vigente de la gerente de la UPV/EHU sobre gestión de la contratación menor en el ámbito de la UPV/EHU y la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
- La justificación de gastos final deberá coincidir con la propuesta inicial. En supuestos excepcionales, cualquier modificación de la propuesta inicial deberá ser comunicada previamente al Vicerrectorado de Estudiantes y Empleabilidad y contar con el visto bueno del Consejo de Estudiantes.

Donostia- San Sebastián, 2023ko martxoaren 14a

UPV/EHU IKASLEEN ETA ENPLEGAGARRITASUNAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA — VICERRECTORADO DE ESTUDIANTES Y EMPLEABILIDAD UPV/EHU

Digitally signed by 34097560Z FERNANDO TAPIA (R: Q4818001B)
Date: 2023.03.14 20:08:39 +01'00'

**Fernando Tapia Alberdi**

Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordea

Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad